

Merezimendu lehiaketarako 22-11-11ko mahai negoziatzailearen informazioa

Haurreskolak Partzuergoak egin zuen Kontsolidazio deialdiaren proposamenari sindikatuok egin dizkiogun ekarpenak aztertu genituen aurreko ostiraleko, hilak 11, mahai negoziatzailean. Haurreskolak Partzuergoak otsailean eskaerak aurkezteko epea ireki nahi du, irailean lanpostuen jabetzak indarrean sartzeko helburuz..

Hauk dira **LABek egindako proposamearen ildo nagusiak**: <https://irakaskuntza.lab.eus/labek-haurreskolak-partzerguko-merezimendu-lehiaketarako-ekarpenak-bidali-ditu/>

Barematuko diren ATALAK		
Lan esperientzia Orokorra: <ul style="list-style-type: none"> • Haurreskola publikoetan (Haurreskolak Partzuergoa edota Udal haur eskolak) • Haur eskola pribatuetan Espezifikoa: <ul style="list-style-type: none"> • Haurreskolak Partzuergoan 	Beste merezimenduak <ul style="list-style-type: none"> • Hautaketa prozesuak <ul style="list-style-type: none"> ○ 2008 edota 2009 LEPa gainditu izana ○ Ordezkoen zerrendan egotea • Prestakuntza <ul style="list-style-type: none"> ○ Ikastaroak: 0-3rekin lotutakoak ○ Ikasketa ofizialak: hezkuntzakoak 	
LABen proposamena	Haurreskolak Partzuergoaren azkena	LABen erronka
Lan esperientzia		
- 2004ko urtarrilaren 1tik aurrera (Partzuergoa sortu zenetik) zenbatzea. -Lan esperientzia bi aldiz zenbatzea. -Lan esperientziaren atalen arteko puntuazioen arteko aldea handiagoa izatea.. -Espezifikoa: 2004tik aurrera, urteka era progresiboan puntuazioa igotzen, gaur egun Partzuergoan lanean daudenak sarituz:	-Azkenengo 18 urteak zenbatzea -ONARTUTA Baimendutako haurreskola publikoetan 0,03 hilabetea, 0,01 pribatuetan. Espezifikoa 0,09 hilabetea	-Puntuazioan topea kentzea. 18 urtetan -Azken urteetan izandako lan esperientziaren puntuazio gehigarria lortzea.
Puntuen % 90a	Puntuen %71,--	Puntuen % 85a
Bestelako merezimenduak		
- Formazio bateratua atal batean tope bakarrekin: <ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza akademikoa • Ikastaroak -Hautaketa prozesuak gaindituta izatea	-Formazioa Banatzen du: <ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntza akademikoa (topearekin) • Ikastaroak (topearekin) -Hautaketa prozesuak gaindituta izatea	-formazioa atal bakarrean (titulazioa+ikastaroak) tope bakararekin
Puntuen %10	Puntuen %29	Puntuen %15

LABek prozesua bermeeekin gauzatu ahal izateko behar diren pausuen kronologia akordio baten sinatzea eskatu du: **Lanpostuen zerrenda negoziatu behar da** → LEPn eskainiko diren **lanpostuen identifikazioa, leku aldatze lehiaketan eskaintzeko** (istoriken lanpostuak salbu) → libre geratu diren 372 **Lanpostuen identifikazioa**.

Gauzak horrela, leku aldatze lehiaketako araudia berrikustea eskatu du LABek.

Haurreskolak Partzuergoak beste proposamen bat helaraziko digu posturak hurbiltze aldera. LAB sindikatutik prozesuaren inguruko informazio zehatz guztia langileekin partekatuko du egingo ditugun langileen asanbladetan. Hona hemen gonbidapena.

LABek antolatutako ASANBLADA IREKIAK: AZAROAK 17, arratsaldeko 17:30etan

Arabak: Gasteizko LABen egoitza, Fermin Lasuen 13
Bizkaian: Bilboko LABen egoitza, Rekalde Zumarkalea 62
Gipuzkoan: Donostiako LABen egoitza, San Bladi 1

Beste gai batzuk

Kontratazio mota berria

Lan erreformaren ondotik Lan-hitzarmenaren 12.4 artikularen negoziatio proposamena **egin digu Haurreskolak Partzuergoak**.

Aipatutako artikuluan jasota dago Lan Estatutuaren 15.1.b) Artikuluaren baitan adostutako kontratuak 9 hilabeteko iraupena izan dezaketela (lan-metaketak) alde sozialarekin negoziatuta. Era berean, premia bereziak dituzten haurrak dauden haurreskoletan 12 hilabete arteko produktibogatik kontratazioa proposatu dute.

LAB sindikatuak proposamena idatziz bidaltzeko eskatu du. Hala ere, ez dugu ulertzen nola Lanpostuen zerrendan 123 lanpostu (LEParteko) bete gabe izanik, lan hitzarmenaren negoziatioa blokeatuta dutenean eta kontsolidazioa eta doakotasuna indarrean jartzeko atarian negoziatio hau proposatzen duten.

Beraz, momentuz 6 hilabete arteko lan metaketa kontratuak egin ditzakete. **LAB sindikatuak hurrengo lan hitzarmenarekin batera gai hau negoziatzeko eskaintza egin du.**

Baremazioa eta Ordezlagunea

LAB sindikatuak sinatutako ordezkoen araudian urtero birbaremazioa egingo dela zehazten da, berez, udazkenean egin beharko zen deialdia.

Ordezlagunea indarrean jartzeko eskaera egin dugu, ezinbestekoa da **Ordezlagunearen araudia negoziatu eta eta ordezkoen araudia egokitzea**.

Enpresak momentuz negoziatio honi ezin diola heldu erantzun digu.

Soldata igoera <https://telegra.ph/Erosahalmena-bermatu-orain-11-07> eta **Kilometrajea igotzeko eskaera**

Desplazamenduak eskatzen duten lanpostuetarako **kilometrajeagatik ordaintzen den dietaren igoera eskatu dugu**. Gaia non aztertzen den argituko dute, Eusko Jaurlaritza osoan zehaztutako kopurua ordaintzen baita.

ANIMO ETA AURRERA!

haurreskolak.ara@lab.eus – 689 68 62 07 – 637 47 40 15

haurreskolak.biz@lab.eus – 666 77 11 96 – 666 77 09 82

haurreskolak.gip@lab.eus – 674 09 45 43 – 666 77 54 84